

Iraganean dago giltza

LUR

“Gatza duten pertsonak hobeto kontserbatzen dira gure oroimenean”.

(Juan Ramon Alberdi)

Zinez tristea izan zen elizkizuna. Aldarea, loreak, kantuak, doluminak, ezagunen joan-
etorriak aurpegia xamurkiro laztanduz... agurrak beti izan ohi dira gogorrak. Anek ez zuen uste
hain hitsa eta goibela izango zenik dena, aspaldian gaixo baitzegoen amona. Tamalez, iraileko
ilunabar hartan kandelaren argia bezala, haizearekin batera uxatu zen Mariaren hatsaren hotsa.
Burua galtzen hasten banaiz, aitzurrarekin jo eta kitto! esaten zion maiz Aneri, 90 urte bete
zituen z geroztik. Bilobak, dena den, ez zion kasurik egiten eta 100 urte bete arte horretarako
denbora bazela esaten zion, amonari irribarrea ebatsiz. Zahartzarora iritsiz gero, Mariak egunak
urte bihurtzen zirela entzun zuenetik, astegun bakoitza azken eguna bailitzan bizi zuen eta
jaiegunak, aldiz, ospakizun gisa. Hitzik ez kanporatuagatik, Anek bazekien amona siestaren
beldur zela; ohera joan eta apika eguzkiaren argia berriz ere ikusiko ez zuelako beldur. Gauean
lotaratu eta goizean goiz baserriko oilarraren kukurrukua gehiago entzungo ez zuelako ikaraz.
Urteak bete eta beldurrak gailendu, bizitzaren legea. Telebista ere ez zuen entretenigarri.
Arratsaldeetan izaten ziren saioetako errietek aztoratu egiten zuten Maria; ez zuen ulertzen
ezerezetik nola haser zitezkeen andre-gizonak hain modu sutzuan. Are gutxiago uler zezakeen
haserretzeagatik nola jaso zezaketen hainbeste diru eta ospe. Gerra garaian ez zen halakorik.
Haserririk ez, baina oinazea eta sufrimendua telebistakoa baino mila aldiz gordinagoa. Urte
franko iragan ziren arren, Mariak ez zituen ahaztuak ama gazteen besoetan geratu ziren
ehundaka ume jaioberriak. Gogoan eta begietan iltzatuta zituen ume gaixo haien oihal
odoleztatuak, mundura ekarri zituztenen negarrak, nola batzuk lurrean bizitzak salbatu nahi
zituzten, zerutik erortzen ziren bonbak asmo on guztien arerio baziren ere. Egunen batean
gertutik ezagutu zuen gerra nolakoa izan zen zehatz-mehatz kontatuko ziola zin egin zion
Mariak Aneri. Scheherezaderen istorioan bezala, ordea, promesa hurrengo egunera, hurrengo
astera luzatzen zen eta sekula ez zen suertatzen gerra garaiko giroa kontatzeko abagune

aproposik. Heriotzak amonaren zina berarekin ilobira eraman zuen arte, eta amonak kontatzeko aukerarik izan ez zuen istorio hura ustekabeen hezur-haragizko bihurtzeraino.

Gertuko norbait galdu dutenek bakarrik dakite zein gogorra den bizitza bati agur esatea eta are latzagoa dela zendutakoaren gauzen inbetarioa egitea hilotza oraindik bero dela. Horregatik, urteek higatutako amonaren gorputz zimurtuari lur eman eta hurrengo egunean bertan gainditu zuen Anek trantze zail hura. Amonaren gelan sartu eta negar-malkoei jausten utzi gabe, armairuko atea zabaldu zituen, haren bihotzean gordetzen zena arakatzeko asmoz. Gezurra zirudien zenbat soineko, lepoko zapi, azpiko arropa, eskapulario eta alferrikako oroigarri pila zitezkeen 90 urteren buruan. Amonak dena gordetzen zuen eta, hala ere, esku hutsik alde egin behar izan zuen sitsak jotako armairu zahar hura oroitzapenez gizenduta utziz. Anek ez zekien nondik hasi ere; hainbeste ziren aldi berean gorde eta botako lituzkeen trasteak... Argazkiak, ez. Kutxa batean txukun jaso eta egunen batean bilduma egitea otu zitzaion. Gainerakoak, ordea, zaborrontzira zuzenean. Gela hartan bera bakarrik zegoen; amonaren marmarra alabaina bere atzean balego bezala entzun zezakeen. Askotan esaten zion bizi zela gazteek gauza gehiegi zituztela eta estimu txikiegia gauza horiekiko eta Anek, amorruz, kopeta iluntzen zion, Mariak gerran pasatako gosetea enegarren aldiz gogorarazten baitzion bilobari. Errietak errieta, Mariak amona biziki mirestu zuen beti eta bere joanak, armairu hura gauzez leporaino utzi bazuen ere, aldi berean zeharo hustu zituen etxe hartako guztien bihotzak. Gatza zuelako, benetako garra, gaztetan aurrera egiten ikasia zelako eta gerra garaian erizain izatea ez zelako langintza erraza. Mariak Aneri gaiaz gehiegi kontatu ez izan arren, 36ko gerran gorriak ikusi zituen amonak hain maitea zuen ofizio zail hartan. Momentu latz haietan ezagutu zuen zer zen miseria, eskasia eta beharra, baita lezio handi bat ikasi ere: gizonezkoen munduan, biziraungo bazuten, emakumeek

borrokan ikasi behar zutela eta emakume baten kemena neurtzeko metroa ez zegoela gizonezkoen esku, bizitzaren eta adonearen esku baizik. Horixe amonak bilobari utzi zion lekukoa eta horri esker ekin zien Anek ere erizaintza ikasketei.

Armairu hartan ez zen ez ondasunik, ez urre gorrizko eraztunik ere; botikak bai, haatik. Xiringa zaharrak, denborak horitutako hesgailuak hamaika eta batez ere, penizilina. Penizilina barra-barra, ehundaka bizitza salbatu zituen miraria. Hura zen Mariaren ondasuna, ez besterik, eta hargatik zegoen hain harro amonaz Ane. Tartean, hala ere, kutxa gorri txiki bat topatu zuen, herdoilak mendean hartua zuena. Armairuaren txoko ilunenean propio gordea inork ikus ez zezan. Bertan, giltza bati atxikitako oharra: *“Saregileen kalea, Eleder etxea”*. Auskalo zertan zetzan misterioa.

Mariak ozta-ozta ikasi zuen idazten eta irakurtzen. Erizaintzan derrigorrezkoa zen biak jakitea, baina bere letra ez zen askorik hobetu urteen poderioz. Giltzari loturik zihoan papertxoa, bederen, ez zen oso hizki txukunez idatzitakoa. Anek, bitartean, ezin asmatu Saregileen kale hura non koka zitekeen. Halako batean, ordenagailura jo eta hantxe agertu zen. Etxea ere bai, Eleder, izen dotore askoa zuena. Hasiera batean eta gurasoak kezka ez zitezen, sukaldeko mahai gainean abisuren bat uztea otu zitzaion, baina azkenean, ez zuen hala egin. Ez zuen uste gauza gehiegi luzatuko zenik eta etxekoei ez zien hitzik ere esan. Kotxea hartu eta isil-isilik atera zen errepidera, etxe misteriotsuaren bila eta kezka bakarrarekin: amonaren heriotzarekin hasitako istorio hark nola bukatu zuen.

Auzo zaharrea zegoen kokatua Saregileen kale hura eta kostaldeko herri gehienei bezala, kresal usaina zerion bazter guztietatik. Itsasoak zakar egiten zuen talka harkaitzen kontra, baita Anek sentitzen zuen urduritasunak ere bere buruan pilatutako kezken aurka. Ezin jakin etxe hartan nork irekiko zion atea eta zergatik iltzatu izango ote zituen amonak kale-etxe izen haiek paper zati hartan. Aspaldi behar zuen gainera, orri zatia zeharo horituta baitzegoen, hezetasunak ia hondatua eta denborak nahiko higatua. Hala ere, Anek gustuko zituen halako ezustekoak eta Mariak, biloba ondotoxoa ezagutzen zuenez, behin baino gehiagotan antolatzen zizkion sorpresa zirraragarriak. Horregatik, papertxo hark ez zuen Ane ezustean harrapatu; bazekien amonak berari propio utzitako azken agurra zela eta garrantzitsua izan behar zuela, armaitu hartan Mariaren bizitza osoa baitzegoen gordeta eta ohar hark hutsala ez zen zerbaiten adierazgarri izan behar baitzuen derrigor.

Eleder etxe bikaina zen ez bairik gabe. Zaharra bezain handia, baina ondo zaindua eta gutxiren esku egon zitekeena. Pago handi batek egiten zion itzal, gudariak babes izaten duten ezkutua antzera, atarian, dena den, inoren arrastorik ez. Mariak etxe aurreko postontziari egin zion so, txirrina zuzenean jotzea usardia handikoa iruditzen zitzaiolako. Nahiago zuen abantaila berak izan eta atearen bestaldekoa ustekabe harrapatu. Azken finean, ez zekien etxe hartan bizi zen familiak ze harreman izan zezakeen amona zenarekin... Tentuz ibiltzea hobe. Buzoira hurreratu eta izen bakarra irakurri zuen: Luis Ormaetxea. Luis? Ormaetxea? Auskalo nor zen. Emakume izenik ez alboan. Mutil zaharra, banandua, alarguna... batek jakin. Anek zalantza gehiegi zituen buruan eta fundamentuzko aztarna gutxi misterioa argitzeko. Korapilo hura askatzeko modurik ez zitzaien bururatzen, baldin eta txirrina jo eta gizonari zuzenean

galdetzen ez bazion. Amonak saltsa ederrean sartu zuen nahi gabe... edo nahita. Kate luze bati lotutako artzain txakurra arduratu zen Aneri ongietorriarekin batera, egundoko sustoa emateaz. Isilean ibili nahi izan zuen baina... azkenean kale. Txakurraren hagin zorrotzei ikaraz begira zela, sarrera nagusiko atea zabaldu zen, *ez beldurrik izan, ez du deus ere egiten* zioen ahots ahulak, Ane lasaitzen saiatzen zen bitartean. Agurea txakurrarengana hurbildu arte, neska gazteak ez zuen arnasa patxadaz hartzerik erdietsi. Txakurrak bezala, egiak ere hagin zorrotzak izan zitzakeen, batzuetan min emateko nahikoak, baina ez zuen zertan hala izan beharrik. Atsegina zirudien adineko gizon hark; azken finean, Ane arrotza zen etxe hartan eta, hala ere, adeitasunez egin zion harrera bidenabar txakurra baretuz. Elkarrengandik lau metroko distantziara, agureak aurrera egiteko keinua luzatu zion berak txakurra eusten zuen bitartean, eta Ane, irribarrea ezpainetan zuela, gonbitari muzinik egin gabe sartu zen etxe barrura.

Elkar ez ezagutuagatik, aiton hark bere bisita aspaldidanik espero zuelako susmoa zuen neskatxak. Etxeko egongelaraino gidatu zuen eta bertan, kafesnea eskaini zion. Beharbada, oker zegoen Ane, baina agureak amonaren gaiaz berak baino gehiago zekielako errezeloa zuen. Kafesnari bi zurrupada eman eta gaia azaltzeari ekin zion Mariaren bilobak, baina kontua benetan xelebrea zen, nondik hasi ere ez baitzekien eta are okerrago, zer kontatu ere ez. Anek bere burua aurkeztu aurretik, agureak berak galdetu zion Mariaren familiakoa zen eta burua goitik behera egitearekin bat, Luisi bi malkok egin zioten irrist masailetan behera. Horrekin aski izan zuen agureak Maria dagoeneko ez zela bizi jakiteko eta handik aurrera, itaunik egin beharrik izan gabe, istorio luze bat kontatzen hasi zitzaion neskatilari; memorian hautseztatuta zituen hamaika gorabehera gogoratzen.

-Zure amonaren adin berekoa naiz ni, orain dela 95 urteko ardo zaharra— esanez ekin zion Luisek iragana berreskuratzeari.

Ahotsa dardarka, gerra garaian gizakiaren miseriak gertutik ezagutu zituela azaldu zion; nola medikuntza izan zen bere ofizioa eta nola bere eskuetatik bizitza zein heriotza neurri berean pasa ziren urte latz haietan. Nabari zen hunkituta zegoela hura guztia gogoratzeagatik eta Anek etena egitea proposatu bazion ere, Luisek aurrera jarraitu nahi izan zuen, zahartzaroak istorio haren ñabardura guztiak irentsi eta bidean galdu aurretik. Halaxe, zintzurrean ahotsa mehetzen zion korapiloa izanagatik, gerrako urte haietan mediku ofizioa eder bezain gogorra zela ikasi zuela adierazi zion, eta eriak sendatzeko abentura hartan ezagutu zuela Maria. Anek bazekien bere amona emakume dotorea izan zela gazte garaian, Luisek, dena den, ez zion bere edertasunaren inguruko aipamenik egin. Gauza bakarra nabarmendu zuen: Mariaren kemena eta bidegabekerien kontra egiten zuen aldarria. Gizonezkoen mundu zital hartan, ezinbestekoa zen erizainen lana eta atsekabez ikusten zuen nola hanpatzen zuten gizasemeen lana emakumezkoek egindakoaren kaltetan, erizainen lana bigarren mailakoa bailitzan. Emakume lana beti mespretxatua, beti itzalpean nahiz eta inorena baino garrantzizkoagoa izan. Mariari odolak borbor egiten zion holakoetan eta Luisek ulertu egiten zuen bere jarrera, baina ez zuen besterik egiten. Ikusi, entzun eta isilean pasa. Anek adi-adi jarraitzen zuen agureak aitortutako guztia, gainera, bere gurasoek ere agian ez zituzten jakingo hainbeste xehetasun... Mariak erizain ofizioaz hitz egiten zionetan, begiak distiraz betetzen zitzaizkion eta Anek, bere lanbidea zinez maite zuen norbait bazen, hura bere amona zela pentsatzen zuen. Horregatik, bazekien Luis ez zitzaiola gezurretan ari hura guztia kontatzean eta agurearen hitzetan, amonaren bizitzaren zati

garrantzitsua ostentzen zela konturatu zen; Mariak sekula azaldu ez ziona eta berarekin eraman zuena.

Zertzeladak zertzelada, Luisek inori azaldu gabeko kapitulua erantsi zion kontaketa, ez neska gazteak, ez bere familiak ere ezagutzen ez zutena, Mariak sekula kontatu ez zielako. Esku-ohere zahar batean bi soldaduk odolez blai zen gizonetzko bat Luisi aurrera ekarri zioteneko, hain justu; uniformeak kentzen hasi eta jeneral intsignia paparrean zuenarena. Aneri aitortu zionez, medikuntzan pasa zituen urte haietan guztietan orduan adina ikara eta erantzukizunaldi berean ez omen zituen sentitu Luisek. Gizon lerdena omen zen aurrean zuen gaixoa, baina besoan zuen zauri ikaragarriagatik larri zena. Maria han omen zen berarekin eta eriaren egoera ikusita, aukerarik egokiena besoaren erdia moztea izango zela adierazi zion Luisi, honek zer egin jakin gabe jarraitzen zuen bitartean. Handik aurrerakoaz nekez gogoratzen zela esan zion Luisek Aneri, soilik zorabiatu eta lurrera jausi zela eta Mariak egin behar izan zituela gaixo harekikoak, baita egin ere. Ikusiaren ikusiaz ikasitakoari esker, gaixoaren odoljarria nolabait etetea lortu omen zuen Mariak eta hala atera omen zen onik jenerala. Askok aitortu nahi ez bazuten ere, emakume baten bat-batekoari esker. Handik aurrerakoaz, ordea, lotsa zen Luis. Lotsa eta damualdi berean. Aneri lan handiz kontatu zion jeneralak, esker onez, merituaren urrezko domina eman ziola ordainetan Luisi, nahiz eta Mariak merezi zuen berez. Nola, dominarekin batera, atzerrian lanpostu duina eskaini zioten eta nola alde egin zuen Luisek dena utzita eta Mariari zegokiona aitortu gabe. Anek, orduan, amorrua sentitu zuen gizon harekiko, bai baitzekien bere amonak ahalegin berezia egin zuela irabazten zuen dirua etxekoei laguntzeko izan zedin eta lan bikainaren kaltetan, gutxietsi egin zutelako amona emakume izateagatik.

Benetan tristetu zen Ane une hartan eta bere poltsa hartu zuen etxe hartatik alde egiteko asmoz, baina Luisek besotik heldu eta azken atala kontatu nahi izan zion. Hunkigarriena, seguru asko. Izan ere, urteak beranduago, herrira itzuli zen Luis eta Mariaren etxea topatu ondoren, barkamen eske joan zitzaion eskuan lore sorta zuela. Erizainak ezin izan omen zion negarrari eutsi eta lipar hartan biek maitasun istorio ezin ederrago bati eman omen zioten hasiera, Luisek berriz ere atzerrira lanera itzuli behar izan zuen arte. Berandu zen ordurako, tamalez. Maria haurdun zegoen, nahiz eta Luisi ez zion hitzik ere esan bere mediku ibilbidean ume hura behaztopa izan ez zedin eta medikuak bere bidea jarrai zezan.

-Zure amona, erizain apartaz gain, emakume adoretsua zen— lotsati batez makurtu zuen burua Luisek, malkoak ezin xukatuz.

Mariaz eta elkarrekin izandako alabaren berri bost urte beranduago izan omen zuen Luisek, amonak berak herriko arotz batekin ezkontzen zela jakinaraziz bidalitako gutunari esker. Harrezkero, ez omen zuen Maria gehiago ikusi, ezta zenbat maite zuen esateko aukerarik izan ere, ezkontzen zela idaztearekin batera ume hartaz ahazteko eskatu baitzion. Halaxe, Aneren aitonak, arotz apal eta langile hark, hartu zuen berea bailitzan neskatoa alabatzat, eta herrian egia denek zekiten arren, denek errespetatu omen zuten familia hura, arotza hil zen arte. Parez pare zuen, hortaz, Anek bere benetako aitona. Medikua, alajaina. Ez zuen sinisterik armairu zahar haren txoko ezkutuean lo zetzan oharrak eguzkia bezain egia handia zuela atzean. Atzerrira joan zenez geroztik, gainera, Luisek bere ofizioaren gailurreraino iristea lortu omen zuen, baina ez omen zuen sekula berriz ere maitasuna ezagutu eta are latzagoa zena, inoiz ez omen zuen Maria ahazterik izan. Nork esan behar zion Aneri bere bihotzean ez ezik, beste zenbaiten bihotzetan ere ahaztezin bihurtuko zenik amona zena; nork esan, bizitzarekin

borrokan ikasia zen emakume hark, armairu batean izango zuenik gordeta bere bihotza eta nola ez, iraganaren giltza.